

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

LURRALDEAREN ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZAREN SAILA

Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

Hasierako onespena ematea ekipamendu generikoko etxadi baten xehetasun-azterketari (Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalean Euskal Herria bulebarraren gaineko pasabideko korapiloaren ipar-ekialdeko sektorean)

Hauxe erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko irailaren 11n egindako ohiko bilkuran:

1. Onespena ematea ekipamendu generikoko etxadi baten xehetasun-azterketari (Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalean Euskal Herria bulebarraren gaineko pasabideko korapiloaren ipar-ekialdeko sektorean), Vitoria-Gasteizko Udaleko Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekintza-ren Saileko Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzuak 2020ko abuztuan eginiko agiriaren arabera.

2. Hasierako onespena ematea ekipamendu generikoko etxadi baten xehetasun-azterketari (Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalean Euskal Herria bulebarraren gaineko pasabideko korapiloaren ipar-ekialdeko sektorean), dossierrean jasota dagoen 2020ko abuztuko agiriaren arabera.

3. Dosiera jendaurrean jartzea, hogei egunerako, ALHAOn eta zabalkunderik handieneko egunkarietako batean iragarkiak argitaratuz, horrek eragiten diola uste duen orok aztertzerik izan dezan, baita egokitzat dituen alegazioak edo oharra aurkezterik ere.

Dosierra Vitoria-Gasteizko Udaleko Herritarrei Laguntzeko Zerbitzuan egongo da ikusgai — Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25—, adierazitako epean.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko irailaren 23an

Alkate-lehendakaria
GORKA URTARAN AGIRRE